

ZABORRA BILDU, GARRAIATU ETA TRATATZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2018. URTEA

I.OINARRIA ETA IZAERA

1. artikulua.Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. artikulua emandako ahalmenak erabiliz eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, Udal honek zaborrak bildu, garraiatu eta tratatzeagatiko Tasa ezartzen du. Tasa hori ondorengo Zerga Ordenantzak eraenduko du eta azken horren arauak aipatu Foru Arauak ezarritakoari lotzen zaizkio.

II.ZERGA EGITATEA

2.1. artikulua- Tasaren zerga-egitatea izango da zaborren eta hiri hondakin solidoen derrigorrezko bilketa zerbitzua ematea, esaterako, etxeko zaborren derrigorrezko bilketa eta etxebizitzetakoa, ostatu, lokaletakoa edo industria jardueretara, merkataritzazko jardueretara, profesionaletara, artistikoetara edo zerbitzuzko jardueretara, sozialetara, kulturaletara, kiroleko jardueretara edo izaera ekonomikoko beste edozein erabilerara, hirigintza plangintzan aurreikusitakoa, bideratutako establezimenduek eragindako hiri hondakin solidoen bilketa, garraioa eta tratamendua.

Tasa kudeatzeko, oro har, lokaltzat joko da Katastroaren Higiezinaren Erregistroan inskribatuta dagoena. Salbuespen gisa, Katastroan inskribatuta dauden eta alboan dauden zenbait lokaletan jarduera berak egiten badira eta subjektu pasibo berak gauzatzen baditu, eta egoera hori egiaztatu ahal bada, horretarako errekeritzen den dokumentazioa aurkeztuz, lokal guztiak lokal bakar bat bezala hartuko dira. Horren azalera katastroan adierazitako banakako azalaren batuketa izango da.

2. Horrela, etxeko zaborrak eta hiri hondakin solidoak dira, lokalen edo etxebizitzetan ohiko garbiketarako eragindako hondakinak eta zaborrak, eta hortik kanpo geldituko dira ondokoak: hondakin industrialak, obretako eskonbroak, giza detrituak, eduki eta material kutsatuak, korrosiboak eta arriskutsuak. Horrez gain, edozein material edo eduki biltzeko orduan, neurri higieniko eta profilaktiko bereziak, edo segurtasun neurri bereziren bat hartu behar baldin bada, kanpoan geldituko dira ere.

3. Ez dago zerbitzugintza tasari loturik, altzariak eta etxeko tresnak kentzeko zerbitzua, borondatezkoa da eta alderdiren batek eskatutakoa.

III.SUBJEKTU PASIBOA

3.1 artikulua. Subjektu pasibo zergadunak dira, pertsona fisikoak edo juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aipatzen dituen erakundeak, hau da, zerbitzua ematen den tokietan, plazetan, kaleetan edo bide publikoetan kokaturiko etxebizitza eta lokalak atzeman edo erabiltzen dutenak, jabe legez, gozamedun legez, logeladun legez, errentari legez edo prekario legez.

2. Zordunaren ordezeko subjektu pasiboa izango da, etxebizitzan edo lokalen jabea eta, hala badagokio, azken horrek etxebizitza edo lokal horien erabiltzaileen gainean ordaindutako kuotak jasanarazi ahal izango ditu, erabiltzaile horiek baitira zerbitzuaren onuradunak.

IV.ERANTZULEAK

4. artikulua.1. Subjektu pasiboaren zerga betebeharreari solidarioki aurre egingo die, Zergei buruzko Foru Arauaren 41. artikulua aipatzen dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak.

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorrearen 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

V. ZERGA KUOTA

5. artikulua. 1. Lokal unitate bakoitzeko kantitate finkoa izango da zerga kuota eta kantitate hori finkatzeko ondokoak izango dira kontuan: higiezinaren izaera eta erabilera, eta higiezin horiek kokaturik dauden tokiak, plazak, kaleak edo bide publikoak duten kategoria.

2. Horretara, ondoko tarifak aplikatuko dira:

A) Tarifa orokorrak:

Taldea	Azalera	Kalearen kategoria	Hiruhilabete Eurotan
1.-ETXEBIZITZAK			22,85
2.-2.1 ADIERAZITAKO ARTIKULUAN ETA 3 ETA 4	25 m2-ra arte	1.	86,40
		2.	63,75
		3.	60,20
		4.	50,95
		5.	41,65
	25,01etik 50 m2-ra arte	1.	103,65
		2.	82,70

TARIFETAN JASO EZ DIREN JARDUERA EKONOMIKOETARA BIDERATUTAKO LOKALAK EDO ESTABLEZIMENDUAK.		3.	78,25	
		4.	61,10	
		5.	50,00	
	50,01etik 75 m2-ra arte		1.	112,30
			2.	89,60
			3.	78,25
			4.	66,20
			5.	54,15
	75,01etik 100 m2-ra arte		1.	125,80
			2.	100,35
			3.	87,60
			4.	74,15
			5.	60,65
	100,01etik 200 m2-ra arte		1.	134,80
			2.	107,50
			3.	93,90
			4.	79,45
			5.	65,00
	200,01etik 500 m2-ra arte		1.	185,05
			2.	147,60
			3.	128,90
			4.	109,10
			5.	89,20
	500,01etik 1000 m2-ra arte		1.	231,35
			2.	184,50
			3.	161,10
			4.	136,40
			5.	111,60
1000 m2 baino gehiago		1.	277,65	
		2.	221,40	
		3.	193,40	
		4.	163,65	
		5.	133,95	
3.- FINANTZA-ERAKUNDEAK	100 m2-ra arte		237,80	
	100,01etik 200 m2-ra arte		285,35	
	200,01etik 300 m2-ra arte		342,25	
	300,01etik 400 m2-ra arte		410,70	
	400 m2 baino gehiago		492,80	
4.- JANARI DENDA, OSTALARITZA, IKUSKIZUNAK	25 m2- ra arte		94,65	
	25,01etik 50 m2-ra arte		113,60	
	50,01etik 75 m2- ra arte		123,10	
	75,01etikl 100 m2- ra arte		132,55	
	100,01etik 200 m2- ra arte		142,00	
	200,01etik 500 m2- ra arte		194,95	
	500,01etik 1000 m2- ra arte		243,75	
	1000m2 baino gehiago		292,55	
5. -BESTE UDALERRI ETA ERAKUNDE BATZUENTZAKO ZERBITZUAK			Euro/tn	
	Hondakinak udal hondakindegian uztea		23,60	

	Hondakinak udal hondakindegian tratatzea eta azken destinora eramatea	43,95
	Hondakinak azken destinoan tratatzea	65,80

B) Tarifa murriztuak zenbait taldeentzat:

1. Lanbide arteko gutxieneko soldata bider 1,3 baino gutxiagoko urteko diru-sarrerak jasotzen dituzten zergadunei aplikatu ahal zaien tarifa. Egoera hori urtero egiaztatu beharko dute, urtarrilean, eta dagozkion egiaztagiria erantsi beharko dituzte: 0 euro.

2. Bi urtez aplika daitekeen tarifa murriztua, jardueraren edo, hala badagokio, irekitzearen aurretiazko jakinarazpena egiten den egunetik zenbatzen hasita, ezarpen berriko enpresa jarduerak edo jarduera komertzialak hasten dituzten zergadunei, 225.000 euro baino gutxiagoko katastro-balioa duten lokaletan, eta ekintzaile berriek bultzatutakoak. Getxolanek jarduera horiek gainbegiratu dituzte eta horren aldeko aurretiazko txostena egin beharko du. Lehenengo urtean, % 75eko murrizketa aplikatuko da dagokion tarifa orokorraren gainean. Bigarren urtean, % 50eko murrizketa aplikatuko da dagokion tarifa orokorraren gainean.

Ekintzaile berrien tarifa murriztua aplikatzeko, interesdunak beren-beregi eskatu beharko du eta bere izaera egiaztatu beharko du Getxolanek, hala badagokio, eskatutako dokumentazioa aurkeztuz.

3. Tarifa murriztua, indarrean dagoen legeriaren arabera familia ugariaren titularrak diren subjektu pasiboek aplikatu beharrekoa, familia-errenta estandarizatua 40.000 euro edo gutxiago denean. Tarifaren murrizpen hori familia ugariaren ohiko etxebizitzari baino ez zaio aplikatuko; hartara, familiako kide guztiak higiezin horretan errolatuta egon beharko dira.

Subjektu pasiboek baldintza eta betekizunetan gertatzen diren aldaketen berri eman beharko dute murrizpen hori jaso ahal izateko. Administrazioak ofizioz egiaztatu ahal du betekizunak betetzen direla, eta subjektu pasiboak tarifa murrizteko eskubidea duela frogatzeko behar diren agiri guztiak aurkezteko agindu ahal dio.

Zerga kuota ateratzeko, tarifa orokorrari familia ugariaren familia-errenta estandarizatuaren arabera dagokion murrizpen portzentajea aplikatuko zaio, koadro honen eredura:

Familia-errenta estandarizatua

Murrizpenaren portzentajea

10.000 euroraino	% 90
10.001 eurotik 20.000 euroraino	% 50
20.001 eurotik 30.000 euroraino	% 25
30.001 eurotik 40.000 euroraino	% 10

FAMILIA ERRENTA ESTANDARIZATUAREN KALKULUA

Familia-errenta (zerga oinarri orokorra gehi PFEZaren aurrezpenaren zerga-oinarria) familia-unitatearen ekibalentzia koefizientearekin zatitzearen emaitza izango da (koefiziente egokiak batuko dira):

Subjektu pasiboa	Koefizientea
Ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin	1,5
Ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik gabe	1,3
Genero indarkeriaren biktima	1,3
Familia-unitateko ume bakoitza	0,3
Familia-unitateko kideetakoren batek desgaitasunik badauka: =>% 33	0,3

Murrizpen horren aplikazioa subjektu pasiboak eskatu beharko du eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Tarifa murrizteko eskaera-idazkia.
- Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak luzatutakoa.
- Familia ugariko kideek Ogasunean aurkeztutako azken errenta aitopenaren fotokopia. Ez badute errenta aitopena egin beharrik, Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, baita erakunde berak egindako dokumentua ere, errentaren datu fiskalak jasotzen dituen.

4. Tarifa murriztuaK aplikatzeko, tasaren subjektu pasibo dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du eskatzaileak (Ur Partzuergoarekin egindako kontratuaren kopia edo titular gisa ageri den ordainagiri baten kopia).

5. Tarifa-murrizpen bat baino gehiago aplikatzeko betekizunak betetzen direnean, subjektu pasiboarentzat onuragarriena dena baino ez da aplikatuko.

Aurreko tarifetan azaltzen diren kuotak ezin dira murriztu.

VI. SORTZAPENA

6.1. artikulua Tasa sortzen da eta zergak ordaintzeko betebeharra izango da zerbitzuari hasiera ematen zaion unean eta zerbitzua eta zerbitzu hori derrigorrez eman behar denez, hasitakotzat joko da, tasari lotutako zergadunek erabilitako etxebizitzak edo lokalak dauden kaleetan edo tokietan etxez etxeko zabor bilketaren udal zerbitzua abian jartzen denean.

2. Zerbitzu hori behin ezarri eta funtzionamenduan jarri eta gero, kuotak sortuko dira egutegiko hiruhileko bakoitzaren lehenengo egunean, tasaren sortzapena data horren ondoren burutzen denean izan ezik. Kasu horretan, lehenengo kuota ondorengo hiruhilekoaren lehenengo egunean sortuko da.

VII. AITORPENA ETA SARRERA

7. artikulua. 1. Tasa lehenengo aldiz sortzen den datatik hurrengo hogeita hamar astegunen barruan, subjektu pasiboek euren inskripzioa egingo dute matrikulan. Horrez gain, horri dagokion alta aitorpena aurkeztu eta lehenengo hiruhilekoaren kuota sartu beharko dute.

2. Norberaren arioz edo interesatuek eurek matrikulan azaltzen diren datuetan aldaketak izan direla jakitera emanaz gero, behar besteko aldaketak egingo dira eta ondoreak sortuko ditu, aitorpena egiten den datatik aurrera.

3. Kuotak hiruhilero kobratuko dira, matrikularen arabera ordainagiriaren bidez.

VIII. URRATZEAK ETA ZEHAPENAK

8. artikulua. Zerga urratzeen kalifikazioa eta kasuan kasuko urratzei dagozkien zehapenak Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 183. artikulua eta ondorengoek xedatuko dute.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantzaren oraingo testua Udalaren Bilkurak onartu zuen 1990eko abenduaren 22an eta 1991eko abenduaren 20an, 1992ko azaroaren 27an, 1993ko azaroaren 26an, 1995eko azaroaren 24an, 1996ko apirilaren 29an, 1997ko urtarrilaren 31an, 1997ko abenduaren 19an, 1998ko abenduaren 18an,

1999ko irailaren 23an, 2000ko irailaren 29an, 2001ko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28an, 2005eko otsailaren 25ean, 2005eko azaroaren 25eko, 2006ko abenduaren 22an, 2009ko abenduaren 29an, 2016ko apirilaren 27an, 2018ko urtarrilaren 31an bilkura-akordioaren bidez aldarazi zen. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta bere argitalpenaren ondoko egunean indarrean sartuko da, momentu horretatik aurrera aplikatuta eta indarrean iraungo du bere aldarazpena edo indargabeketa erabaki arte.